

Gabonak Iruñean

Olentzero

zentsurapean

Gabon bezperan ohikoa da Olentzero herrietako kaleetan ikustea, baina Iruñean arazoak besterik ez dituzte izan azken urteotan. Kultur koordinadorei fidantzak eskatu dizkie Udalak ospakizuna egiteko, eta ezetz esan dutenez egoera latzak bizi izan dira festa egun honetan. Aurten ere, ikusteko dago zer gertatuko den.

LANDER MUÑAGORRI

Argazkiak: Josu Santesteban

EUSKAL HERRIKO haur askoren gutunak jaso ditu Olentzerok aurten, urtero jaso ohi dituen bezalaxe; batek bizikleta eskatu dio eta Play Stationa besteak. Eta Gabon gauero egin ohi duen gisan gure ikazkinak opariok etxeetako pinuaren pean utziko dizkie. Ilusioa zabalduz, gutun guztiei erantzunez, Olentzerok zintzo demonio betetzen du urteroko zita. Baina Iruñetik eskutitz bat jaso du. Bertan ez diote jostailurik eskatu, haurrik ez dago gutunaren atzean, Iruñeko Udalak baizik. Eta zer eskatu dio bada? Dirua. Olentzero fidantzak ordaintzera behartuta baitago Foru Erkidegoko hiriburuan.

Iruñeko auzoetan hogeita hamar urte luze eman ditu ikazkinak Gabon bezperako kabalgatetan parte hartzen. Zanpantzar, dantzari eta musikariek lagunduta, Olentzerok idiek tiratutako gurdian egiten du ibilbidea, azken urteetan Mari Dominginen laguntzarekin. Gainera, haurrek dioten mirespena hazten joan da Nafarroako hiriburuan, eta Bizar Zuri edo Errege Magoei opariak eskatu beharrean gero eta gehiago dira Olentzerori erregaliak eskatzen dizkietenak; hala adierazi digu behintzat Felipe Castel Txantrea auzoko kultur koordinadorako kideak. Haurrek Gabonetako zein pertsonaia nahiago duten jakin nahi izan zuen iaz Iruñeko Udalak, eta inkesta jarri zuen bere webgunean. 8.000 pertso-

nek boza emanda zutenean, %88k Olentzero nahiago zutela eman zuten aditzera. Une horretan “aldaketa batzuk egin ahal izateko” inkesta kendu egin zuen webgunetik Udalak.

Aurkari boteretsua

Hirian gero eta aldeko gehiago dituen arren, eragozpenak ere izan ditu tripaundiak. Horren lehen hazia 2004an erein zen. Castelek zehazten digunez, “Udaletik denbora zeramaten esanez Olentzeroren kabalgata politizatzen ari zela, eta 2004an festetako araudia jarri zuen indarrean”. Ospakizun honetan inongo kartel edo pankartarik ez erakustea jarri zuten baldintzat, eta hori bermatzeko 1.000 euroko fidantza ordaindu behar zuten auzoetako kultur koordinadorek. Olentzeroren kabalgata igaro ostean, Iruñeko Udalak erabakia bere esku izango luke diru kopuru hori itzuli ala ez, umeei zuzendutako kabalgata nola igaro zen baloratu ondoren. “Auzoetako koordinadorak ezustean harrapatu gintuen erabaki horrek, eta hori inposizioa zela iritzita, ez ordaintzea erabaki genuen”. Izan ere, Castelek jakitera eman digunez, “kultura egiteagatik fidantzak ordaindu behar izatea bidegabekeria iruditzen zaigu”.

Eta festa eguna izan beharko lukeena tentsio eta urduritasun egun bilakatu zen. “Lehe-

Haurrek Gabonetako pertsonaia gustukoena zein duten galdetu zuen Iruñeko Udalak. Olentzero nabarmen irabazten ari zela, inkesta kendu zuten webgunetik

Desfilerako animaliak ekartzen dituzten tratanteei isunak jarri dizkiete. Donibanen, errepidetik joatea galarazi eta espaloitik egin behar izan zuten desfilea



nengo urtean kultur koordinadorei isuna jar-
tzen saiatu ziren, eta egoitzak itxiko zizkigu-
tela edo espedientatu egingo gintuztela egin
ziguten mehatxu”, gogoratu du. Kasuak
epailearen aurrean amaitu zuen, eta Olentze-
ro irten zen garaile. “2006an ikusirik nondik
egingo ziguten aurka, fidantzak ez genituela
ordainduko esaten jarraitu genuen”; baina
oraingoan pertsona partikularren eskutan
utzi zuten antolakuntza. Nahiz eta jakin
bazekiten epaituak izateko arriskua zutela,
ez zituzten kultur koordinadoren egoitzak
jokoan jarri nahi. Hala, auzotar ugari bilatu
eta bakoitzari 1.500 euroko isuna jarri zieten,
Olentzeroren kabalgata baimenik gabe egi-
tea leporatuta; berriz epaiketara jo, eta beste
behin irabazi zuten.

Iaz azkenean mozio bat aurkeztu zuten
Iruñeko Udaleko pleno aretoan, fidantzen
gaiak ez hanka ez buru ez zuela salatuz.
UPN alderdiaren aurkako bozekin, eta PSN,

Txantrea auzoko desfilea.

NaBai eta EAE-ANVren aldekoekin, Gabon
bezperako ospakizunak ez eragozteko onartu
zen. “UPNk erabaki hau ez zuela onartuko
esan zuen, baina kabalgata baino egun bat
lehenago baimenak eman zizkiguten”, eta
Olentzerok urteroko bisita Iruñean arazorik
gabe egin zuen 2004tik estreinakoz. Hala
ere, Txantreako kultur koordinadorari isuna
jarri zioten, presoen aldeko argazkiak eraku-
tsi izanagatik. Erabaki hau berriz ere epaile-
aren eskuetan dago, eta ebazpenaren zain
daude txantreatarrak. Azkenean badirudi
epailea bera bilakatu dela Gabonetako pro-
tagonista nagusia.

Aurtengo desfilea egiteko, Castelek uste
du printzipioz ez dutela arazorik izango,
udalbatzaren babesa baitaukate, baina ez
dakite UPNk zer esango duen azken unera
arte, eta edozer gauza espero dezaketela
azpimarratu du. Honen haritik, Iruñeko
Udaleko hiritarren segurtasun departa-

Gabonak Iruñean

mentura jo dugu azalpen eske, aurtengo desfileetarako trabarik ezarriko ote duten jakin ahal izateko, baita arazo honen guztiaren inguruan euren ikuspuntua jaso ahal izateko ere. Baina galdarak airean geratu dira, erantzunik gabe.

Gabon 'klandestinoak'

Olentzero polemika gai izan da azken urteetan, ikusi den gisan. Eta fidantzak ez ordaindu izanagatik, auzo ugari Udalarekin ika-mika etengabea aritu dira behin eta berriz. Horien artean daude Arrosadia, Donibane, Santa Urzelai, Arrotxapea, Txantrea edo Etxebakoi auzo iruindarrak; baina fidantzak ordaindu dituztenak beraiek izan arren, beste hainbat auzo ere eurekin solidariatu dira.

“Mendillorriren kasuan esaterako, hasieran fidantzak ez ordaintzeagatik esperientzia gogorak izan zituen poliziarekin, eta haurrek oso une txarrak igaro zituzten. Hortaz, hurrengo urteetan fidantzak ordaintzea erabaki zuten, ados egon ez arren”, diosku Castelek. Polizia Nazionalaren eta Udaltzaingoaren presentzia etengabea izan da azken urteetako ospakizune-



Goiko irudian, Txantreako Gabon desfilea. Behekoan, Olentzeroren aldeko protesta, Iruñeko Udalaren aurrean.

tan. “Askotan haurrak gertatzen zenaz ohar ez zitezen, poliziak zeuden lekuak saihesten ibili izan gara”.

Beste hainbatetan, desfilerako animaliak ekartzen dituzten tratanteei edo traktoreen jabeei isunak jarri dizkiete, Olentzerorekin batera ateratzea eragotziz; zanpantzarrak aldatzen ari ziren lokal batean poliziak sartu eta identifikazioa eskatu zieten; beste behin, Donibanen errepidetik joatea galarazi eta espaloitik egin behar izan zuten desfilea... “Gabon bezpera ospatu beharrean, bilera klandestino egiten ari garela iruditu zaigu askotan”, gaineratu du Castelek.

Gabonetako egun hauek bereziak izaten dira, eta Olentzerok politika ororen gaindi egon beharko luke; ikazkinak ez baitu bozik ematen inongo hauteskundeetan; euskal kulturaren parte da, eta ez inongo alderditako kide. Olentzero opariak eta ilusioa banatzera mugatzen da, gaizki portatu denari ikatza utziz. ■

Sutagar

20 URTE

20. URTEBETETZE OSPAKIZUN BIRA

ABENDUAK 26 DURANGO PLATERUENA
URTARRILAK 5 DONOSTIA ROCKSTAR

BI KONTZERTU HAUTAN
SARRERAREKIN
SU TA GAR 1987-89
CD BAT OPARI

kontratazioa: 619 11 69 74
sutagar.com

